

B


BARREN

TOKIKOM



Herritarrek dute hitza

**Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte itxoiten dugu maiz**



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK



Ainhoa Lendinez

Kaixo, Iñi!
Asteburua pasatu berri da, eta kirol asko egin al dozu? Gaur, kirolaz galdetu nahi dizut, baiña beste ikuspegi batetik. Izan ere, aste erabakigarria izan leike hau denbora askorako, eta hauteskunde atarixan, ezin ba aurpegi xake beste alde batera jirau.



Iñigo Lariz

Aupa, Ainhoa!

Asteburuan nahi baiño kirol gitxiago egin dot, bestelako konpromiso mordo bat euki ditudu eta, baiña gorputza eta arima oxigenatzeko menditu bueltatua egin gabe ezin gelditutu. Eneko Llanos ez debe askok ezagutzen, eta beste asko bezela, puntako kirolarria da. Bat Basque Team-a ere mailla ikaragarriko kirolariz osatua dago, baiña hórretako edozeini lorpenek baiño oihartzun gehixago dauke adibidez Piqué eta Shakiraren artekuak. Hori zergaitik dan? Telebistan oso gutxi edo bat ere ez diralako agertzen. Adibide baterako, asteburuan Itxako eskubaloitaldiak Txapeladunen ligako finala jokatu dau, eta gure telebistan agertu ere ez dira egin. Erakundiek hemengo kirolarixak gehixago bultzatu beharko zittuzten, eta kanpokuen berri gitxiago eman. Guzti horrek jendiak kirolari dion estimua baldintzatzen dau eta.

“Erakundiek gehixago bultzatu beharko zittuzten hemengo kirolarixak”

Hauteskunde atarixan gaude, eta ezin da, ez, beste aldera begiratu. Bizikletan ikusi zenduzen harek garraio bide osasuntsu eta ekologiko bat bultzatze plantetan ibilliko ziran, baiña ikusi egin biharko da esaten dituden danak betetzen dituden. Egunero zenbat kotxe mobiltzen dan pentsatzen jarritta, askotan galdetu naiz nola dan posible oraindik garraio publiko eraginkor bat ez izatia poligonuetara juateko. Baiña oraindik gutxi diran arren, beste herrialde batzutan bezela, hemen ere egunero lanera bizikletan juten danik ere badago. Maltzagarako bidegorria oso ondo dago egixa esan, baiña aisialdirako da erabilgarria batez ere (nik asko erabiltzen dot entrenatzeko). Mugikortasun funtzia daken bidegorrixak ere biharezkuak dirala pentsatzen dot. Gaiñera, gaur egungo bizimodu sedentariuxan kontra egitteko neurri erakinkorra izango zan ahal debena lanera bizikletan edo oinez juatia. Penia guk horretarako aukerarik ez dakagula, ezta?

Hedabidien lana oso garrantzitsua iruditu jata beti, eta are gehixago hauteskunde atarixan. Badakizu, ni hedabide batian ari naiz lanian urte dextetan, eta han ere, gezurra badirudi ere, euskaldunok aldapa handixa izaten dogu askotan. Iragarki askotan euskara, euskal kultura, euskal kirolak... Danak bultzatzen ditudute, baiña gero, askotan, euskaldunon telebista baiño gehixago erdaldunena dala iruditzen jata.

Eta horretaz ari naizela, ezinbestian etortzen jata burura Esait taldia. Besteak beste, Iratiko Tourra antolatu debe azken bi urtietan, Iparraldia eta euskara, bixak sustatzeko. Eta telebistan ez diebe iñolako publizitaterik egin, “politizatuta” dauazela argudiatuta. Euskal selekzio baten aldeko lanari ezezku eman, eta gero, Espaiñiako selekziuan inguruan albiste mordua emititu! Edurne Pasaban ere hor ibiltzen da, mendirik garaienetara Espaiñiako telebistan publizidadia eramaten. Hemengo erakundiek ez al diebe horri erreparatzen?

“Danok dakigu Ronaldo nor dan, baiña zenbatak ezagutzen debe Eneko Llanos?”

BAT ere badago, Basque Team. Ezin dot ukatu ikaragarri indartsuak dirala spotak, begira-begira geratzen natzaie. Eta bertan dauazen kirolarixak punta-puntuak dira Euskal Herrixan. Dana dala, hortik kanpo, ez jatzu iruditzen euskal kirola eta euskal kirolarixak gehixago bultzatu biharko littuzketela “gure” erakundiek? Izan ere, danok dakigu Ronaldo nor dan, baiña zenbatak ezagutzen debe Eneko Llanos?



ESKERTZA

SABINO ARRIOLA ANSOTEGI

2011ko maiatzaren 15ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:




Laguntzaileak:



EL GOBIERNO LENIA



MENDAKO UDALA



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Hasi gaituzen Zero zabor bidean lanean

Errauste plantari oinarria emango dion plataforma egiten ari dira Zubietako gainetan. Lehen harria jartzeko ekitaldi sinbolikoa ere egin zuten agintariek, errauste plantaren aurkako flash-mob jendetsuaren bezperan.

Baina hauteskundeak etorri dira, eta berri ere mahai gainean dago errauste plantaren proiektua, hiru legegaldi eta tirabira politiko ugariaren ostean.

Gaur egun errauste plantaren alternatiba sendo bat dago mahai gainean: atez ateko gaikako bilketa. Modu horretan herrialdeko lau herrik — Oiartzun, Hernani, Usurbil eta Antzuola — inoiz Euskal Herrian lortutako birziklatze datu ikusgarrienak lortu dituzte: hondakinen %80 inguru birziklatzea lortu dute.

Elgoibarren noiz hasiko gara gure hondakinak behar diren bezala sailkatzen, murrizten eta berrerabiltzen? Gure osasuna jokoan dago, lagunok! Hasi gaituzen Zero zabor bidean guztiok lanean.

Gai honen inguruan informazio gehigo: www.gipuzkoazz.com

A.I.Z ©

Madalako errotonda dela-eta

Goiz eta eguerditan sekulako auto ilarak sortzen dira Madalako errotondan, eta semaforetan bi edo hiru aldiz egon behar izaten gara zain. Denok presaka ibiltzen gara ordu horietan, eta auto-gidari guztiak ahal duten lekuraino sartzen dute muturra. Arrisku uneak ere bizi izan ditugu. Zergatik ez dute aprobe txatu aparkaleku berria egiteko obra errotonda biribila egiteko? Gune horretan badago errotonda itxia egiteko lekua, eta askoz hobeto funtzionatuko luke. Udal Gobernu berriak gai hau kontuan hartzea nahiko genuke.

A.L. ©

OHARRA

Astelehenean Udal eta Foru Hauteskondeei buruzko ale berezia argitaratuko du **BARREN**ek, Elgoibarko eta Mendaroko emaitzekin. Nahi duenak doan eskuratu ahal izango du Elgoibarko okindegietan eta Mendaroko puntu estrategikoetan.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Udal hauteskunderi buruzko ale berezia argitaratuko dugu astelehenean

BARRENEK udal hauteskundeetako ale berezia banatuko du astelehenean Elgoibarko eta Mendaroko puntu estrategikoe-tan. Emaitza guztiez gain, Elgoibarko alkategaien balorazioa ere jasoko dugu ale horretan. Domekan, maiatzaren 22an, 9:00etan zabalduko dityzte hauteslekuak, eta 20:00etan itxi. Elgoibarren, 11.356 lagun daude errolatuta, eta horietatik 8.983 daude botoa ematera deituta. Mendaron, berriz, 1.929 lagun daude erroldan izena emanda, eta horietatik 1.475ek eman ahal izango dute botoa.



Lorcako lurrikara dela eta, joan zen astean bertan behera lagatako ekitaldia atzo goizean egin zuten PSE-EE alderdiak. Ovidio Campello alkatezarako hautagaiak eta Iñaki Arriola Garraio eta Azpiegitura sailburuak arrosak banatu zituzten merkadilloan, eta PSE-EErentzako botoa eskatu zuten.



Alfredo Etxeberria eta Irune Berasaluze EAJren Elgoibarko eta Mendaroko alkategaiek eta Markel Olano EAJren Gipuzkoako ahaldu nagusigaiak kafe tertulia egin zuten eguazten arratsaldean Usuako terrazan, kazetari batek moderatuta. Hauteskunde programen inguruan jardun zuten, besteak beste.




Javier Nuñez PPren alkategaia eta alderdi popularreko baztarkideak Elgoibarren izan ziren martitzenean, hauteskunde kanpainako ekitaldian. Karameloak, baloiak eta esku orriak banatu zituzten, eta PPrentzako botoa eskatu zieten elgoibartarrei.



Jose Luis Ibarzabal Bildu Elgoibarko alkategaia eta Jon Peli Uriguen eta Ainhoa Mendibil zerrendakideek hauteskunde programa aurkeztu zuten zapatuan. Ekitaldian, Ander Rodriguez eta Iñaki Agirrezabalaga Gipuzkoako Batzar Nagusietarako Bilduko hautagaiek ere parte hartu zuten, eta baita hainbat herritarrek ere.

Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia

Oharra: Testuak erredakzioan moztu behar izan ditugu. Erantzun osoak www.elgoiBARREN.net-en.



ALFREDO ETXEBERRIA
EAJ



GAZTERIA

Ekipamendu bat behar dugu gure gazteen inplikazioak, ekimenak, sormenak eta nahiak guztiontzako hobekuntzak ekar diezazkiguten. Gazteekin egindako azterlanen eta proiektu pilotuen ondoren, ekintzailletzan eta haien autokudeaketarako trebakuntzan aurrera egin nahi dugu. Haien ideiak proiektu bihurtzeko eta horiek jarduera bilakatzeko gai izan nahi dugu. Lankidetzaren horren oinarriak diseinatze-ko lanean ari gara. Elkarbizitzatik, inplikaziotik, elkarlanetik, eta espazioak eta ametsak partekatuz abiatuta. Amets horiek egi bihurtzeko gauza izango gara? Zergatik ez lanbideak asmatu? Zergatik ez adinekoren laguntza onartu eta sinerjiak sorrazi?... Elgoibarren 15-30 urte bitarteko 1.619 gazte daude, horietatik 821 gizonezkoak eta 798 emakumezkoak. 2009an Udalak bi diagnosi burutu zituen: bata, arrisku egoeran egon zitezkeen Elgoibarko haur eta nerabeen beharrei buruzkoa, eta bestea, herriko bizikidetzari buruzkoa. Diagnosi hauetatik ondorioztatzen da badaudela elkarbizitza hobetzeko bideratu beharreko gaiak: gazteen lokalak eta horiek lokalei ematen dieten erabilera, Udalarekiko erlazioa eta gazteek parte hartzearen, inplikazioaren eta ezagutzaren gizarteari eskaini dezaketen onurak. Gazte lokalen fenomenoaren aurrean, Udalak ulertu eta ongi ikusten du, gazteek leku pribatu bat izateko nahia eta beharra. 1.619 horietatik 428 lokal bateko partaide dira, hau da % 26k lokala dutela esan genezake. Proiektu berri bat lantzen ere ari gara Udaletik; gazteei erabilera anitzeko gune bat (topagune bat) izateko aukera emango diona, baina, bestalde, herrikoak eta herrikoak ez diren gazteak elkartzea eta erlazionatzea ahalbidetuko duena. Berritzeko, sortzeko eta modu integratzailean gozatzeko metodo eta teknologiak onartu eta babestu nahi dira Udaletik.

EUSKARA

Euskararekiko motibazioa eta haren ezagutza sustatu nahi ditugu, bereziki, erabilera eta kalitatea, euskararen normalizaziorako bidean tresna baliagarriak diren heinean. Hemen, edozein esparrutan baino gehiago, norbanakoaren ekarpena ezinbestekoa da. Euskara erabiltzeko motibazioan goiari eutsi behar diogu, eta eguneroko zereginetan euskaraz aritu. Motibatuta eta erabiliz, ikasi egingo dugu.

HIRIGINTZA

Elgoibar eraldatzeko hasitako prozesuari eustea proposatzen dugu, gure herria pertsonen "okupatzeko" asmoz, kaleez eta plazez goza dezaten. Ibaia integratu nahi dugu (egungo ikuspegia aldatu). Ibaia bizkarra emateari utzi nahi diogu, eta gure herria haren aurrean kokatu. Baliabide natural garrantzitsu hori udalerrian integratu nahi dugu, eremu zabal, ireki eta irisgarrien bidez. Merkatu plazaren eta Pedro Muguruza eskolaren inguruetan jardun nahi dugu. Trenbide-sarea integratu nahi dugu. Egungo trenbide-sarearen diseinuak hiri-haustura bat dakar. Arazo hori zenbait jardunen bidez konponduko dugu: Pedro Muguruza etorbidea Gabriel Kruzelaegirekin (Toletxeren parean) elkartuko duen gaineko pasabidea 2012ko udan gauzatuko da. Santa Anako biribilgunea San Rokerekin elkartuko duen bide berria amaitzeaz dago. Meliton eta Gabriel Kruzelaegi elkartuko dituen bide berria 2012an gauzatuko da. Aurri-egoeran dauden eraikinak: Jabee-kin harremanetan jarraituko dugu aurri-egoeran dauden eraikinak eraistea eta emaitzako eremuak erdialdea libratuko duten hiri-inguruko aparkaleku gisa aldi batez gaitzea adosteko. Bidegorriak: Elgoibar eta Altzola datorren legegintzaldian elkartuta egongo dira. Era berean, oinarriko zerbitzuak eta azpiegiturak, auzoen arteko inbertsio-oreka, eta landa-esparruaren mantentzea ziurtatuko ditugu. Lan hauetan inbertitzen jarraituko dugu: hiri-mantentzea eta edertzea, hiri-sareko ura landaguneetara hornitzea, saneamendu-sarea, landa-bideak, gasa, elektrizitatea eta telekomunikazioak. 2011n, Altzola eta Sigma auzoetako igarobidean N-634 errepedearen zeharbideek sorrazten dituzten arazoak konponduko ditugu.

GIZARTE POLITIKAK

Gizarte-zerbitzuen kalitatea eta arreta hobetu nahi ditugu, kolektibo bakoitzerako bereizitako programak aplikatuta. Gertutasuna eta pertsonalizazioa tratuan. Autonomoak diren zaharrentzako laguntzak zerbitzuekin osatzea, egoitzetan sartzea ahalik eta gehien atzeratzeko. Pilar eskolan egoitza bat eta eguneko zentro bat eraikitzea. Kolektibo bakoitzerako bereizitako programak zehaztu eta aplikatzea. Erdialdean etxebizitzak emakida-erregimenean eraikitzea, zerbitzu horiek behar dituzten pertsona autonomoentzako. Erdialdean garai berrietara egokitutako anbulatorio irisgarri bat ezartzeko Osakidetzari erraztasunak ematea.



OVIDIO CAMPELLO
PSE-EE



GAZTERIA

Sozialisten proiektuak gazteekiko konpromisoa erakutsi du azken urteotan, gazteak direlako aldaketan eta denoi eragiten dizkiguten politiken protagonistak. Gurea bezalako gizartean gazteei laguntzea edo gauzak erraztea ez da opari edo pribilegio moduan hartu behar, baizik eta etorkizunerako berme moduan. Egungo egoera ekonomikoa ikusita, gazteak ezinbestekoak dira gure herriak etorkizun indartsu eta osasuntsua izan dezan. Sozialistok ikuspegi gazteko politika garatuko dugu, modernoa eta etorkizunari begirakoa. Gure herriaren etorkizunari dagozkion politikak garatuko ditugu. Gaurko gazteria hoberen prestatutako belaunaldia dela ahaztu gabe, lan egonkor bat eskuratzeko aukera gutxien duena da. Eta ez hori bakarrik, ondo prestatuta egon arren, emantzipatzeko aukera gutxien dutenak dira. Neurri handi batean Gobernu Foralen eta herri batzuetako perspektiba faltaren ondorioa da. Besteak beste, gune artistikoak sortuko ditugu, Elgoibarko kultura sustatzeko, eta gazteekin zuzenean egingo dugu lan. Udal Gobernutik gazteak eragile protagonista izatea ahalbidetuko dugu, eta emantzipaziorako erraztasunak emango dizkiegu.

EUSKARA

Euskara 21 ponentziaren ondorioak onartzen ditugu, eta euskararen erabilera sustatzeko planak proposatuko ditugu. Euskarak, osasuntsu egon arren, bultzada emango dioten neurriak behar ditu oraindik, herritarren aukera linguistikoaren kontra egingo ez duten neurriak, hain zuzen ere. Hala ere, ez dugu santzio edo isunik jarriko euskara ez jakiteagatik edo ez erabiltzeagatik. Administrazio publikoek aukeratzen dituzten sustapen neurriek positiboak izan behar dute beti, hau da, libreki euskaraz funtzionatzea erabakitzen duten erakunde, elkarte edo pertsonak saritu behar dira, baina sekula ez dira zigortu behar, euren eskubide osoz, euskara ez erabiltzea erabakitzen dutenak. Euskara ikasi nahi duenari erraztasunak eman behar zaizkio, baina ikasi nahi ez duenari ez zaio inposatu behar. Elebitasun eragin-korrerantz abiatzeko, Autonomia Estatutuaren kontrako diskriminazioa ekidin dugu. Bide bakarra agintari politiko eta eragile sozialen arteko batasuna da. Euskararen normalizazioa onartuko dugu, hori delako elgoibartarren gehiengo demokratikoaren nahia. Besteak beste, euskarazko kultura kontsumitzeko politikak garatuko ditugu.


HIRIGINTZA

Garapen iraunkorra sustatuko dugu, aldaketa klimatikoaren kontrako politikak garatuz, ondasun naturalak babestuz eta gure herria antolatuz. Sozialistok herri-hiri bildua eratu nahi dugu; auzoen giza-koheretza bultzatuko dugu. Era berean, Udalak lurrak eta eraikitze eskubideak eskura dituzan saiatuko gara, babestutako etxe gehiago eraiki daitezken. Horrez gain, etxebizitza zaharrak berritzeko politika sustatuko dugu herriko ingurune degradatuak berreskuratzeko, eta horrek, gainera, enplegua sortuko luke. Babes ofizialeko etxebizitzaren aldeko apustua egingo dugu, bereziki, alokairuzkoen aldekoa. Sozialistok bizikletaren erabilpena proposatzen dugu: bizikletentzako bide eta ibilbide bereziak, seinalizazio egokia, aparkalekuak... Ingurumen hezkuntzari dagokionean, ingurua hobetzea eta ingurumena eza-gutzeko guneak promozionatu nahi ditugu. Berdeguneak herriaren elementu klabeak dira, eta lorategiak eta parkeak zaindu egin behar dira. Era berean, energia garbiak sustatuko ditugu, eta azpiegitura eta gune publikoetan energia hobeto aprobetxatzearen aldeko apustua egingo dugu. Azkenik, herria eta auzoak garbi mantendu behar dira, eta zaborra bereizteko proiektuak garatzen jarraituko dugu.

GIZARTE POLITIKAK

Zerbitzu bakoitzak daukan kudeaketa alde batera utzita, gizarte zerbitzuen ardura publikoaren aldeko apustua egiten dugu. Gure oinarriak efikazia, efizientzia, ekitatea eta ardura soziala izango dira. Zerbitzu sozial unibertsalak nahi ditugu. Jende guztiarentzako zerbitzuak, eta "pobreentzako zerbitzuak" ideia hori baztertu nahi dugu. Pertsona guztien autonomia, babesa eta inklusioa bultzatu nahi ditugu. Era berean, ongizatea gure herriarentzako lehenetsua da, eta horregatik, alor honetan aurrekontua handitzea proposatzen dugu. Aldi berean, kudeaketa hobetzeko mekanismoak jarriko ditugu martxan, gastuak murrizteko. Zerbitzu sozialen alorrean, zaintzaileentzako zerbitzua, parte-hartzea eta inklusioa bultzatuko dituen zerbitzua, etxebizitza zerbitzua, eguneko eta gaueko zerbitzua, etxebizitza tutelatuak, harrera pisuak, langabetuentzako laguntza eta lanpostuen sorrera. Populazioaren zahartze duin eta osasuntsuaren alde egingo dugu lan. Era berean, gizarte zerbitzuen kontseilua sortzea proposatzen dugu.

Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia



**JOSE LUIS IBARZABAL
BILDU**



GAZTERIA

Gazteok ez omen gara mugitzen. Paso egiten omen dugu. Interes falta, ganoragabekeria... ez dago arreta askorik jarri beharrik horrelakoak entzuteko. Eta horiek kontuan hartuta egin nahi dugu guk lan. Zergatik? Garbi daukagulako egoera oso bestelakoa dela. Baina, era berean, askok errazegi egiten dutelako gazteon gaineko irakurketa merke hori. Hortaz, iritziok kontuan izanda, eta gure herrian dagoen gazteriarengan konfiantza osoa jarrita abiatu nahi dugu bide berri hau. Badakigulako Elgoibarren gazte ekintzaile mordoia gaudela. Herri honi bere onena emateko prest dagoen gaztez inguratuta gaude, eta horrek herri honek etorkizun hobe bat baduenaren ziurtasuna eskaintzen digu. Uneoro hartzen dira gazteoi zuzenean eragingo diguten erabakiak, gu kontuan izan gabe. Horrekin amaitzeko urgentziatzeko beharra dago. Gazte lokalak izan, Gaztetxearen auzia, edo zapatueta gure herrian sortzen den giroa, drogak, horien kontsumoa eta sortu daitekeen menpekotasuna, eta aisialdia izango dira gure lehentasunak. Badakigu baina, bidean beste hainbeste behar, arazo edo egoerarekin egingo dugula topo, eta horretarako, nahi duguna nahi dugun moduan egiteko, behar-beharrezkoa da Elgoibarko gazteria. Denon artean, denon bidea erabaki nahi dugulako; betiere, etorkizunean begia jarrita. Eta badakigulako gazteok garela etorkizuna.

EUSKARA

Hasi aurretik aipatu, euskara izan dela azken lau urteotan guk kudeatu ditugun arloetako bat (kulturekin batera). Horrek adierazten du gure lehentasunen artean dagoela. Ez dugu ulertzen Euskal Herria euskararik gabe, eta ahalegin berezia egin nahi izan dugu normalkuntzan. Azken lau urteotan egin dugun lana aurreko urteetan egindakoari jarraipena emateko helburuarekin izan da, batez ere, Euskara Biziberritzeko Planean sustatzen diren gaiei dagokionean, baina baita ere euskararen normalkuntzari lagunduko dion beste edozein arlotan. Hala ere, etorkizunera begira, asko dago oraindik egiteko, bide onean goazen arren. Elgoibarren euskararen ezagutza ziurtatuta dago, baina erabilerak arduratzen gaitu. Euskara erakargarri egin behar dugu belaunaldi berrientzako, erabiltzen ez bada etorkizun iluna izango duelako, eta jende gazteak bere eguneroko bizitzan normaltasunez eta konplexurik gabe erabiltzea da erronka nagusia. Horretarako, ezinbestekoa izango da gazteek euskararengandik ze espero duten jakitea; adibidez, beraien bizitzan euskarak duen lekuaz hausnarketa egitea. Horrek lagunduko digu euskarak hizkuntza modernoa izaten jarrai dezan. Azken lau urteotan egin dugun bezala, herrian dauden elkarrekin ezberdinekin sustatutako elkarlana mantenduko dugu, emaitza interesgarriak eman dituen elkarlana dela uste dugulako.

HIRIGINTZA

Jasangarritasuna eta garapen orekatua izango dira gure politika zuzenduko duten bi ildo nagusiak. Etxegintzan, espekulazioari bideak itxiko dizkion lurzoru politika egin nahi dugu. Etxebizitzarako eskubidea bermatzeko ez da beharrezkoa herriko espazio ireki guztiak eraikuntzaz betetzea. Aurreikusi egin behar dira zerbitzuak kokatzeko, eta aisiari begira herritarren esku egon behar diren espazioak. Etxebizitza hutsen errolda berriz egitea da gure lehentasunetako bat, alokairuan jartzeko neurri pizgarriak garatuz. Horregatik, etxebizitza politikan alokairuko etxebizitzak eraikitzea lehentasunezkoa izango da. Alokairuko etxebizitza publikoaren aldeko apustua egiten dugu. Elgoibarko alde zaharra zaindu eta mimatu nahi dugu, gure ondarea babesteko duen berritzeko plan orokor bat eginez. Garrantzi handia du industriguneak non eta nola kokatu behar diren, eta hori era arrazional baten aztertzea ezinbestekoa da. Azkenik, herri-gune auzo eta base-ri-guneetako herritarren beharrei erantzuneko dion garapen orekatua bultzatzea da gure asmoa. Herritarren partaidetzak nonbaiten garrantzia badu arlo honetan da, norberak dituelako auzo eta kaleetan egin daitezkeen proiektuen inguruan ekarpen egokienak, eraginkorrenak.

GIZARTE POLITIKAK

Onartu behar da azken garaiotan krisi sakonean murgildurik bizi dela pertsona ugari. Testuinguru honetan lehentasuna eman nahi diogu gizarte-politikari, batez ere krisia gehien pairatzen duten sektoreen beharrei erantzuteko. Gizarte-politikan ezinbestekoa da garrantzitasuna, denok ditugun eskubideak bermatzeko eta faboritismoak edo azpijokoak ekiditeko. Gure lehentasunetako bat informazio kanpaina bat antolatzea izango da norberak eskatu ditzakeen laguntzen berri izateko. Ez dadila inor kaltetua irten informazio faltagatik. Etorkinak herri proiektuaren parte aktibo bilakatzeko bitartekoak landu behar ditugu: beraien asoziazionismoa bultzatuz, euskalduntze planak eskainiz etab. Horretarako, garrantzitsua izango da Udaleko sail ezberdinen arteko elkarlana.



**JOANES RODRIGUEZ
ARALAR**



GAZTERIA

Gizarte eta herri bateko etorkizuneko sektore ez ezik, gaur egungo gizarte talde dinamiko gisa ere hartuak izan behar gara gazteak. Gainera, kezka eta arazo espezifikoko ditugun taldea gara. Krisiak modu berezian erasotzen digu gazteoi, eta lehendik geneuzkan hainbat arazo larriagotu egin ditu: lan merkatura sartzea, etxebizitza lortzea... Gure autonomia bermatzen duten baliabideak behar ditugu gazteok, gizarteratzea aktiboa eta parte-hartzean oinarritutakoa izan dadin. Parte-hartzea eta gazteok proposatutako jarduerak bultzatzea gazteak subjektu pasibo bihurtzen dituen eredu paternalista gainditzeko bideak dira. Gatazkak konpontzeko prozesuetan gazteon aktibismoa sustatu behar da, sormen espazioek duten garrantzia nabarmenduta, bai pertsonalek, bai eta kolektiboek ere. Gazteon espiritu kritikoa suspertzeko asmoarekin egingo dugu lan, gizartea aldatzeko bultzada eta grina aintzat hartu beharko dugu, eta gizarteko gainerako adin tarteekin zein eragileekin elkarlanean jardutera bultzatuko ditugu. Elgoibarren, esaterako, gazteek eurek sortutako espazioak eta ekimenak autogestionatzea bultzatuko dugu (gazte lokalen arteko sarea eta normatiba berria, esaterako).

EUSKARA

Hizkuntza politika ez da sail bakar baten zeregina, Udal guztiarena baizik. Gai honek transbertsala edo zeharkakoa izan behar du, eta departamentu edo sail propioa osatuko du. Baina ez da nahikoa euskara sail bat izatea, politika aktiboak eta eraginkorrak bilatu eta ezarri behar dira herrian, eta ondorioz, baita Udalean ere. Ez da euskara arduratu behar gaituen hizkuntza bakarra, 21. mendean funtsezkoak izango dira bigarren, hirugarren... hizkuntzak, eta elgoibartarrok ere prest egon behar dugu. Hala ere, ez da sekula ahaztu behar zein den gure altxorra: euskara. Euskarak esparru propioak behar ditu, non bizitza sozialaren komunikazio-erreminta nagusia izango den. Beraz, euskaldungoa nagusi den udalerrietan berriazko hizkuntza-politika ezarri beharko da, etorkizunean ere nagusitasun horrek bizirik iraun dezan. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) biltzen diren udalerriek betetzen dituzte ezaugarri horiek, eta ondorioz, Udalak UEMako kide egin daitezten bultzatuko dugu. Halaber, mankomunitatearen osaera eta aginte-organoak pluralak izan daitezten bultzatuko dugu. Era berean, Udal-legea Legebiltzarrean eztabaidatzen denean, Aralarrek euskara-atalak zerbitzu izaera izan dezaten bultzatuko du.


HIRIGINTZA

Bistakoa da Elgoibarrek azken urteotan jasan duen aldaketa. Bistakoa baita ere, herriak dauzkan beharra, k eta ondorioz, herritarrek dituzten nahiak. Hau horrela, herritarren beharrak asetzea funtsezkotzat jotzen dugu bestelako beste edozertan dirua inbertitu aurretik. Kirol instalakuntzak, kultur instalakuntzak, sorkuntzarako guneak, aisialdi guneak... zer izan dugu azken urteotan? Hirigintzako planek gure herri eta hirietarako duten garrantzia nabarmendu behar dugu, eta herritarrok ulertu behar dugu plan horiek etorkizuneko Elgoibarren izaera bera baldintzatzen dutela. Herri orekatuagoak eta bizigarriagoak izatearen alde egin behar dugu. Horrenbestez, hirigintzako plangintzak gauzatu behar dira, aintzat hartuta gizarte bizitza, eta espazio publikoak aldarrikatuta eta bultzatuta. Hori dela-eta, hirigintzako plangintzak diseinatzean herritarrek parte hartzea aurreikusi behar da, baita bideratu ere. Plangintzak egiteko unean, nahitaez hausnarketa hauek egin behar ditugu: herria eratzeko zein eredu nahi dugu? Norantz joan nahi dugu? Zenbat hazi behar du herriak? Eta, batik bat, zein etorkizun utzi nahi dugu? Lurzoruaren gehiegizko artifizializazioa saihestu behar dugu, eta espazio libreak eta berdeguneak sustatu behar ditugu.

GIZARTE POLITIKAK

Desberdintasunak ahalik eta gehien murrizten saiatzeko, eta herri kohesionatu eta orekatuaren eredia bultzatzeko, aukera berdintasunaren eta gizarte orekaren bermea izan behar dute zerbitzu publikoek. Krisiaren ondorioz, herritarren zati baten egoera are izugarriagoa da, eta, ondorioz geroz eta herritar gehiago dira gizarteak baztertutakoak eta pobrezian bizi direnak. Udalak behar horiei erantzuteko gauza izan behar du. Horretarako, Udal bakoitzak bere "Gizarte Eskubideen Karta" izatea proposatzen dugu. Karta horretan herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak eta horiek erabiltzeko bete behar dituzten baldintzak jasoko dira. Onartezina da pribatizatzearen alde egiten ari diren apustua. Eta are onartezinagoa da, oraindik, gizarte zerbitzuen lege bat onartzea. Aralarrek sendo egingo du kudeaketa publiko zuzenaren alde, irabazteko asmorik ez duten enpresa pribatuekin koordinatua eta partaidetua. Gizarte zerbitzu publikoak ez direla lehen baliabidea aldarrikatzen dugu, eta denontzako gizarte babesa blindatzen duen gizarte solidario batean bakarrik izando dutela zentzua.

Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia



JUAN SANCHEZ VALLEJO
EZKER BATUA-BERDEAK



GAZTERIA

Lehenik eta behin esan behar dut Ezker Batua-Berdeak alderdiak ez duela hauteskunde programa promesa hutsetan oinarritu. Ez da Errege Magoei idatzitako eskutitza. Badakigu, hala ere, proposamenak aurrekontu baten barruan egin behar direla, eta aurrekontu hori hipotekatua dagoela une honetan, krisiaren eraginez. Hortaz, gazteriarri dagokionez, ondorengoak proposatu dugu:

- Gazteentzako lan poltsa.
- Alokairuko etxebizitzak sustatu, egoera prekarioan bizi diren gazteentzat, bereziki. Alokairuko etxebizitza politika sustatu.
- Alkohola eta bestelako drogen kontsumoaren prebentziarako kanpaina eta ekintzak garatu.
- Artista gazteen poltsa osatu, herriko kultura dinamizatzeko.
- Aisi alternatiboa sustatu.

EUSKARA

Euskarari dagokionean, ondorengoak egingo dugu:

- Herri guztiek eduki beharko dute Hizkuntzaren Normalizaziorako Plana.
- Euskararen normalizazioa sustatu behar da, Udal zerbitzuetatik.
- Udalak konpromisoa hartu behar du alor honetan, eta Udaleko zerbitzu guztietan egin beharko luke eskaintza euskaraz.
- Udaleko aurrekontuaren %1,5 gutxienez, euskararen erabilera eta normalizaziorako bideratu behar da.
- Udalaren hizkuntza politika Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatu behar da, eta baita, eskualdeko gainerako Udalekin ere.
- Gure Udalak helduentzako euskalduntze eta alfabetatze kanpainak prestatuko ditu, eta era berean, herritarren artean euskarazko harremanak sustatuko ditu.
- Udal administrazioak lehentasuna emango dio euskarari, herritarrekin harremanetan jartzerakoan.

HIRIGINTZA

Hirigintzan ondorengoak sustatuko ditugu:

- Etorkizunean osasun, gizarte edo kultura alorreko ekipamenduak egiteko gordeko ditugu lurrak.
- Herri gunean ahalik eta leku gehien prestatuko dugu oinezkoentzako.
- Etxebizitza zaharrak berritzeko politikak garatuko ditugu, perspektiba publikotik.
- Oztopo arkitektonikoak kenduko ditugu. Autonomia falta duten pertsonak kontuan izango ditugu.
- Hirigintza proiektuen segimendu eta kontrol zehatza egingo dugu, ondorengo udal gastuak ekiditeko.
- Lursail publikoa sustatuko dugu, Bizigune programarekin elkarlanean, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko.

GIZARTE POLITIKAK

Gizarte politiken alorrean, ondorengoak proposatzen ditugu.

- Haur Hezkuntza, 0 eta 3 urte bitarteko eskariari erantzungo diogu.
- Egonaldi ertain eta luzeetarako eskualdeko ospitale baten eraikuntza aztertu beharko luke Elgoibarko Udalak. Beste herri batzuetan hasi dira proiektu horrentzako lursailak eskaintzen, eta Elgoibarko Udalak gauza bera egin beharko luke.
- Osasun, kontsumo eta ingurugiro konpententziak garatu. Udala herritarren osasun beharren bozeramaile izan behar da Osakidetzan.



FRANCISCO JAVIER NUÑEZ
PP



GAZTERIA

Gazteen inizatibaren aldeko apustua egingo dut. Legealdi osoan zehar erakutsi dute gazteek ekintzak antolatzeko duten gaitasuna, eta inizatiba hori sustatu behar dugu, Elgoibarrentzat positiboak badira, behintzat. Gazteen eta gazte elkarte-en arteko koordinazioa handitu behar da. Gazteen intereseko ekintzak aurrera eraman behar dira. Kultur espresio berrien aldeko apustua egiten dut, bereziki. Elgoibarren edozein estilotako kale-tribuek izan behar dute lekua, eta gehiengoak ez izan arren (gamers-ak, floggers-ak, visuals-ak, gotikoak, skaters-ak, dancers-ak...), horien aldeko apustua egiten dut. Era berean, horiek guztiak batu ahal izateko gune bat egokitu behar da. Gazteei, bestalde, erraztasunak eman behar zaizkie: etxebizitza erraztasuna, informaziorako erraztasuna (sexualitatea, lana, ekintzailetasuna, laguntzak...). Eta bereziki, jarrera biolentoak, xenofoboak eta baztertzailak desagertzeko egingo dut lan.

EUSKARA

Gaztelaniarekin batera, euskara elgoibartarren hizkuntza nagusia izatearen aldeko apustua egingo dut. Bizitzako esparru guztietan egin behar dugu euskararen aldeko apustua, baina inor inposatu edo baztertu gabe. Euskara Sailak oso ondo lan egin du, baina oraindik lan gehiago egin behar du. Urtero gehitu behar dira Sailaren baliabideak, eta ezin da onartu murrizketak egitea, orain arte egin diren bezala. Era berean, euskara plan berria sustatuko dut, egungo ekintzez gain, euskararen erabilera bermatuko duena. Plan horrek, bereziki, arrazoa edozein izanda ere, euskara ikasi ez dutenentzako eta euskaraz espresatzerik ez dutenentzako baliabideak jarri behar ditu, ez dezaten sentitu euskara inposatua edo ezinezkoa dela. Euskara elgoibartarren bilgunea izan behar da. Euskara ezin da izan elgoibartarrak banatzen dituen, ez dugu nahi euskarak jendea bazterterik. Euskarara bildu nahi duenari babesa eman behar zaio, baina era berean, euskara gaztelaniaren osagarritzat hartzen duena ere errespetatu behar da. Denok merezi dugu aukera berbera.

HIRIGINTZA

Herritarren beharrak erantzun dituen hirigintzaren aldeko apustua egingo dut: gazteentzako etxebizitzak eta oinarrizko zerbitzuak prestatu, oztopo arkitektonikoak kendu, auzoak elkartu... Azken batean, hirigintzak segurtasuna eman behar digu guztioi (gutxitu fisikoei, emakumei, umei...). Horretarako, ezinbestekoa da guztion elkarlanaren fruitua den Hirigintza Antolamendurako Plan Nagusia. Auzo guztiak hartu behar dira kontuan, herriko parte garrantzitsua direlako. Herrigunean, auzoetan edota landa eremuan bizi diren guztiek zerbitzu aukera berbera izan behar dute. Auzoen eta herrigunearen arteko lotura azkarra eta eraginkorra izan dadin saiaturako gara, eta Udalbus zerbitzua izan daiteke aukera bat. Ingurumena errespetatuz, lursail industrial gehiago bilatuko ditut, gure herriko ekonomiaren ardatza industriak izaten jarrai dezan. Era berean, garrantzitsua da azpiegiturak (errepideak, oinezkoenak, aisialdiakoak...) egungo beharretara egokitzea. Azkenik, gustura bizitzeko herria sortu behar dugu, eta Elgoibarrez harro egotea lortu behar dugu. Elgoibar garbia, ordenatua eta kalitatekoa. Horretarako, ingurumenarekiko errespetua ezinbestekoa da.

GIZARTE POLITIKAK

Solidaritatea oinarrizko konpromisoa da, baina laguntzak nori ematen zaizkion eta zertarako erabiltzen diren kontrolatu behar da. Laguntza horiek benetan beharra dutenei ematen zaiela kontrolatu behar dugu, eta benetan behar baditu, bere beharrak asetzen direla ziurtatu behar da, murrizketarik gabe. Nagusiak uneoro kontuan eduki behar ditugu, beraiek izan direlako egungo Elgoibar eratu dutenak, eta Elgoibarko parte aktibo izaten jarraitu behar dute. Herriko parte aktibo izan daitezen arduratuko naiz, eta herriko ekintzetaz gozatzeaz gain, etorkizunerako Elgoibar eratzen laguntzeko erraztasunak emango dizkiet. Euren eskari guztiak bete behar ditugu, eta horretarako hitza ematen dut. Mugikortasun arazoak dituztenentzako zerbitzuak sustatuko ditut, orain arte egin ez dena norbaitek prometitua zituen arren. Jende horri bizitza erraztu behar zaio. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egingo dut lan, eta baita genero indarkeriaren kontra ere. Emakumea oinarrizko elementua dela ahazten duenak hankasartze handia egingo du. Era berean, ez naiz ahaztuko bakarrik bizitzeko gai ez diren pertsonetaz, ezta etorkinetaz ere, horiek guztiak ere Elgoibarko parte direlako. Euren parte-hartzea erraztu behar dugu.



Mendaro

1. Herritarren parte-hartzeari dagokionean zer nolako balantzea egiten du zuen alderdiak? Mendaroarren badute aukerarik udal bizitzan parte hartzeko?
2. Kultur politikari dagokionean, zein da jarraituko duzuen bidea? PP eta PSE-EEren kasuan, zein da sustatuko duzuen hizkuntza politika?
3. Alderdien programetan adineko pertsoneri tarte berezia eskaini izan zaie azkeneko legealdietan, beharbada populazioa bera ere zahartzen doalako. Hala ere, zer da zuen alderdiak boto-emaile gazteenei eskaintzen diena?
4. Zer da nekazal eremuko herritarrek zuengandik espero behar dutena?
5. Krisiak bete-betean jo du Mendaro ere, eta egoera zaila bizi dute herritar askok. Krisiaren kontrako zein neurri hartzea aurreikusten duzue?
6. Mendaron erroldatutako etorkinak 85 dira. Immigrazioari dagokionean, zein da jarraituko duzuen politika?

Oharra: PSE-EEko eta PPko hautagaien erantzunak erredakzioan euskaratu ditugu.



IRUNE BERASALUZE
EAJ

“Herriko taldeen eta Udalaren arteko elkarlana ezinbestekoa da”

1. Dagoeneko abian jarri dugu herritarren partaidetza prozesua, Gipuzkoako Foru Aldundiak Kudeatuz programaren laugarren fasean egoteko eskaini digun aukera onartzea erabaki dugulako. Kontuan izanik legealdi bukaeran gaudela, hurrengo legealdiaren hasieran gauzatuko dugu bai partaidetza prozesua bera eta baita politika publikoen ebaluazio inkesta ere. Horretaz gain, Udala beti dago herritarrei irekita edozein proposamen egin ahal izateko.

2. Bi bide jarraitu ditugu orain arte. Alde batetik, Udalak zuzenean antolatzen dituen ekintzak daude: direla ekintza kulturalak edota herriko jai nagusiak, adibidez,

eta beste aldetik, herriko hainbat elkarte eta taldek antolatzen dituztenak daude. Udalak laguntza eskaintzen die talde horiei, ekitaldi horiek antolatzeko. Uste dugu elkarlan hori ezinbestekoa dela, herriaren intereserako antolatzen diren ekintzak Udalak lagundu behar dituelako.

3. Beraiengandik gauden baino hurbilago egotea nahiko nuke eta Udala ez dezatela urruti dagoen zerbait bezala ikusi, beraien proposamenak, desioak eta nahiak jasotzeko eta entzuteko prest gaudela helarazi nahi diet, Mendaroren etorkizuna dira eta zer esan handia daukate.

4. Euren beharrei erantzuten saiatzen gara, eta gehienetan behar horiek bideak

egoera onean edukitzea izaten da. Berehala hasiko gara Sahatzu baserrira doan bidea konpontzen, eta horrekin, uste dugu, baserrietara doazen bideen egoera orokorrean ona izatea lortuko dugula.

5. Krisiaren kontrako neurri orokorrak hartzea ez da erraza Mendarokoa bezalako Udal txiki batentzat. Hala ere, saiatzen gara bailara mailan Debegesaren bidez enpresetatik eta ekintzaileetatik hurbil egoten, baita herriko merkatariegandik ere. Eta nola ez, gure herrian egoera larria bizi duten pertsona eta familiei aurrera egiteko laguntzak ematen ere. Elikagaien Bankuaren kolaboratzaile egin da Mendaroko Udala legealdi honetan, eta bolunta-



rio batzuen lan ordainezinari esker, behar gehien duten herritarrek laguntza hori ere jasotzen dute.

6. Gure herrira etorri diren eta etorriko diren etorkinak beste edozein herritar bezala hartzen ditugu, haien integrazioaren al-

de lan eginez. Saiatzen gara behar dituzten zerbitzuak eskaintzen, eta bide horretatik jarraituko dugu aurrerantz ere.



**SONIA GARCIA
BILDU**

“Gizarte zerbitzuak eta zerbitzu publikoak bultzatuko ditugu”

1. Iruditzen zaigu ilusioa galdua dutela mendarorek, eta ilusio hori berreskuratzeko lan egingo dugu Bildutik, herriari bizia emateko ezinbestekoa dela iruditzen zaigulako.

2. Herritarren parte-hartzea sustatuko dugu. Kultur politikaren barruan, euskararen beraren erabilera bultzatuko dugu, eta kirol ekintza eta kultur ekintza gehiago antolatuko. Euskal Herrian sustraitutako tra-

dizioak ere indartu nahi ditugu, Olentzeroren kalejira eta ihauterietako festak, besteak beste.

3. Gazteen artean aspaldi galdu zen ilusioa berreskuratzen saiatuko gara.

4. Arreta handiagoa eskainiko diegu, eta baita laguntza ere, jakin badakigulako landa eremuan bizi direnek behar handiak dituztela.

5. Gizarte zerbitzuak eta zerbitzu publi-

koak bultzatuko ditugu. Krisiaren ondorioetako bat langabeziak gora egin izana da, eta horri erantzuteko, langabetuen lan-politza bat sortuko dugu Mendaron, herriko langabetuei lanpostua bilatzen laguntzeko. Herrian sortzen diren lanpostuetan lehentasuna herrikoiei emango diegu.

6. Herriaren parte izateko aukera eman-
go diegu, haien integrazioa bultzatuta.



**JOSE ANTONIO RODRIGUEZ
PSE-EE**

“Arreta berezia jarri behar diegu enpresa txiki eta ertainei”

1. Ona. Herritarren parte-hartzea sustatzeko bitarteko batzuk indarrean daude dagoneko. Iruditzen zaizkigu gardentasunarekin batera herritarren parte-hartzeak zutabe nagusienetakoa izan behar duela Udal kudeaketan.

2. Euskara guztion ondarea den neurrian,

iruditzen zaizkigu euskararen normalizazioarako eta euskararen erabilera sustatzeko balio duten ekintza guztiak babestu behar dituela Udalak, beti ere aurrera egiteko den heinean, eta politika horiek adostuak diren neurrian.

3. Gazteek horren gustuko dituzten ekintzak

eta ikastaroak antolatzen dituzten taldeen-
tzako diru-laguntzak handitu behar dira. Liburutegiko eta ludotekako ordutegiak luza-
tzea ere azter dezakegu, eta baita eskolaz kanpoko orduetarako egokiak diren bestela-
ko ekimenak sustatzea ere.

Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia




4. Udalaren eginbeharra da Udalaren beraren zerbitzu publikoak zein bestelakoak landa eremuetan bizi direnengana hurbiltzea. Arlo horretan oso garrantzitsua da Debemeneke egiten duen lana. Udalari dagokionean, iruditzen zait behar-beharrezkoa dela baserrietarako bideak txukuntzea eta garbitzea, eta bereziki neguan, elurrak eta izotzak isolatuta laga ditzakeelako hainbat herritar.

5. Ezinbestekoa da gizarte politikak indartzea eta laguntza behar duten herritarrei erraztasunak ematea. Aktibitate ekonomiko eta lanpostuak sortzeko bitartekoak ere baditu Udalak, eta iruditzen zait Debegesari laguntza handiagoa eskatu behar diogula. Eskualdeko enpresa txiki eta ertainengan arreta berezia jarri behar dugu, haiek direlako krisia gehien nozitzen ari direnak. Horregatik, enpresa horiengan arre-

ta berezia jartzeko eskatu behar diegu gainerako erakundeei ere.

6. Etorrinen populazioa etengabe ari da hazten, eta immigrazio politikarik zuzena eta egokiena haien integrazioa ahalbidetzea izango da. Horretarako, ezinbestekoa zaigu elkar ondo ezagutzea eta errespetatzea. Errespetuz jokatzeko den neurrian, pluraltasuna eta aniztasuna beti dira aberasgarriak.



ANTONIO SAYAGO
PP

“Aisia eta kultura uztartzeko ekimenak garatuko ditugu”

1. Alderdi Popularrak garrantzia handia ematen dio komunikazioari, edo hobeto esanda herritarren eta Udalaren arteko hartu-emanen. Hala, iruditzen zaigu komunikazio bide guztiak zabaltzea dela herritarren parte-hartzea indartzeko modurik eraginkorrena.

2. Alderdi Popularraren hizkuntza politikak bi zutabe nagusitu ditu: askatasuna eta aukera berdintasuna. Bi hizkuntza ofizial ditugu, eta iruditzen zaigu bi hizkuntza horiei garrantzia bera eman behar diegula, beti ere elkarrenganako errespetua sustatuz eta herritarrei bietako edozein erabiltzeko aukera emanaz. Hori dela eta, iruditzen zaigu euskarak konfrontazio politikorako gai izateari laga behar diola. Bi hizkuntzek Udalaren babesa behar dute, eta norbanakoek bietako edozein hautatzeko aukera izan behar dute.

3. Gazteak eta haien ezinegonak beti merezi izan dute gure arreta. Aisia eta kultura uztartzeko ekimenak garatuko ditugu. Benetan

gazteen aldekoak diren egitasmoen arreta berezia eskainiko diegu. Etxebizitza politikaren alorrean ere esan dugu etxebizitza batean sartzeko bidea erraztuko diegula gazteei. Langabezia da gazteei dagokienean arazorik handiena, horrek bestelako arazo eta zailtasunak sortzen dizkielako etorkizunari aurre egiteko orduan. Udaletik, beti ere gainerako erakundeekin elkarlanean, gazteen lan munduratzeko lagundu behar dugu. Gazteak dira gure etorkizuna, eta gogor lan egin behar dugu euren jaioterrik alde egitera behartuta sentitu ez daitezela.

4. Landa eremuan bizi diren herritarrek, gainerakoen antzera, konfiantza osoa izan behar dute gugan. Euren kezkek entzun eta sortzen zaizkien arazoei irtenbide bat bilatzen lagunduko dien bitartekaria izango gara.

5. PPK agindu duen lekuetan eta oraindik agintean dagoen lekuetan, garbi gelditu da gure politika ekonomikoaren eraginkortasu-

na. Krisi ekonomikoa ez da Mendaroko arazo soilik, eta horri aurre egiteko gure politikak hiru ardatz nagusi izango ditu: aurrekontuen egonkortasuna, gastuen zorroztasuna eta kudeaketa eraginkorra. Langabezia da, zalantzarik gabe, krisi horren ondorioz agerikoena, eta langabeziak arazo ekonomikoak ez ezik gizarte arazoak ere sortzen ditu. Hori dela eta, herriko ekonomia sustatu eta lanpostu berriak sortzea erraztuko duten neurriak jarriko ditugu indarrean, krisiari eta langabeziari aurre egiteko. Herritarren ekimenean sinesten dugu, eta hala, ekintzaile horiei trabak kendu eta bidea erraztuko dien neurriak bultzatuko ditugu.

6. Etorrinen gizarteratzea erraztea da gure helburua, ahaztu gabe, jakina, etorkin horiek hemen bertako eskubide eta betebeharrak berdintzen dituztela. Elkarbizitza eta aukera berdintasuna lagunduko duten politikak sustatuko ditugu.

Zabaldute Guass diskoteka egon zen orubean egin duten aparkalekua

50 auto inguru aparkatzeko lekua dauka aparkalekuak

Aste honetan bertan amaitu dituzte Guass diskoteka egon zen orubeko aparkalekuko obrak, eta dagoeneko erabilazeko prest dago. Herriko ordaindutako estreinako aparkaleku publikoa da, baina, lehen bi astetan ez da ezer ordaindu beharrik izango, argiztapen sistema jartzen duten arte, behinik behin. Astelehenetik zapatu arratsaldera arte ordaindu beharko da, eta zapatu arratsaldetan (13:00etatik aurrera) eta domeketan, egun osoz, doakoa izango da. Tarifak honakoak dira: Egunez (8:00etatik 20:00etara) ibilgailuak aparkatzeagatik 0,60 euro ordaindu beharko dira orduko. Gaueko tarifa (20:00etatik 8:00etara), berriz, 0,125 eurokoa izango da orduko. 50 bat autorentzako lekua du Udalak egokitu duen aparkalekuak, eta Udal agintarien iritziz, aparkaleku faltaren arazoa arintzen lagunduko du.



Sare sozialei buruzko prestakuntza saioak eskainiko dituzte Mendaron

Datorren astean sare sozialei buruzko prestakuntza saioak eskainiko dituzte, Arno guraso elkarteak eta Mendaroko Udalak antolatuta. Baikara elkarteko Garbiñe Arrizabalagak eskainiko ditu saioak. Lehenengo saioa euskaraz emango du martitzenean, eta bigarrena, gaztelaniaz, eguenean. Bi saioak Mendaroko udaletxean izango dira, 19:00etan hasita. Formakuntza saio horiek gurasoentzako izango dira bereziki, eta sare sozialen erabilerari eta arriskuei buruz hitz egingo dute.

Kataluniako enpresa batek irabazi du Mendaroko ikastolako patioa estaltzeko ideia lehiaketa



Irabazleek aurkeztutako infografia.

Ikastolako patioa estaltzeko 58 proposamen jaso ditu Mendaroko Udalak, eta Blurarquitectura enpresa kataluniarak irabazi du lehiaketa. Bigarren lekuan Michele Corbani eta José Bellido Nuñez Iruñeko arkitektoen lana geratu da, eta hirugarren lekua Eibarko Nestor Perez Valenciagarentzat izan da. 9.000 euro, 1.500 euro eta 1.000 euroko sariak eskuratu dituzte, hurrenez hurren.

Udaletxeko arduradunek jakinarazi dutenez, aurkeztutako lanen maila "oso ona" izan da. Hala ere, herritarren partaidetza "nahiko txikia" izan dela nabarmendu dute. Dena den, ikastolakoek ikusi dituzte aurkeztu diren lanak, eta euren iritzia ere eman dute. Haien iritziaz, hirugarren lekuan geratu den proposamena izan da gustukoena.

Irabazleak hilabeteko epea izango du proiektua idazteko, eta, ondoren, obraren esleipena egingo dute. Mendaroko Udalaren asmoa obrak opor garaian burutzea da.

Ekitaldia **Bertsolaritza**



9 eta 13 urte bitarteko 247 ikaslek bi bertso saio eskaini dituzte Herriko Antzokian, bertsogintza eta ahozkotasuna lantzeko egitasmoaren barruan. Saioak martitzen eta eguaztenean izan ziren, eta ikasleekin batera, Urko Egaña eta Mikel Olaizola elgoibartarra izan ziren bertsotan. Euskaraz ezagutzatik erabilerara eramatea da egitasmoaren helburua.

Ekitaldia **Doinuzahar abesbatza**

Durangoko Doinuzahar abesbatzak kontzertua eskaini zuen domekan, Altzolako San Juan elizan, Zubibai elkarteak antolatuta. Gerturatu ziren herritarrak aho zabalik geratu zirela azaldu dute antolatzaileek. Gitar-jole batek lagundu zien emanaldian, eta Zubibai-ko kideek esandakoaren arabera, oso emanaldi ona izan zen, "errepikatzen modukoa".



Lambretta motoen kontzentrazioa Altzolan

Altzolako Zubibai elkarteak Lambretta motoen kontzentrazioa antolatu du datorren domekarako, Eibarko Club Lambretta elkartearekin batera. Moto mota horiei buruzko informazioa emango dute antolatzaileek, eta gainera, motoan ibiltzeko aukera ere egongo da. 12:00etan hasiko da ekitaldia, Altzolako frontoian.

Gurutze Gorriak sorospen ikastaroa eskainiko du ekainean

Elgoibarko Gurutze Gorriak Lehen Sorospen ikastaroa antolatu du, 16 urtetik gorakoentzako. Ekainaren 3tik 25era bitartean eskainiko dute ikastaroa, barixaku arratsaldetan eta zapatu goizetan. Antolatzaileek esandakoaren arabera, larrialdi uneetan erantzuteko gaitasunak eskuratuko dituzte ikastaroa egiten dutenek. Ikastaroaren matrikulak 120 euro balio ditu. Informazio gehiago eskuratzeko ondorengo telefono zenbakira deitu daiteke: 661 260 557 (Xabi)

Dantza latinoen ikastaroa, ekainaren 1etik aurrera

Ekainaren 1etik aurrera dantza latinoen ikastaroa hasiko da Olaizaga kiroldegian. Astelehen eta asteazkenetan izango dira saioak, 20:30etik 21:45era. Ikastaroa doan izango da.



ESKERTZA

Ma LUISA MENDIKUTE ZANGITU

2011ko maiatzaren 17an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**IREKI
BIDEA
EZKERRARI**

Bozkatu
alarar

BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI

bozkatu EAJ PNV
lekin eta eni

ONENA EMATEKO GARAIA

mendaro mendaro mendaro

f B YouTube SoundCloud in Twitter

Eman botoa

LEHENA, ELGOIBAR

Ovidio Campello

HAUTAGAIA

**PSE-EE
PSOE**



Eneko Andueza

Batzar Nagusietako
Deba Urolako
lehen hautagaia

Ovidio Campello

Batzar Nagusietako
Deba Urolako
hirugarren hautagaia

GIPUZKOAren
txanda da

Garagardo feria egingo dute maiatzaren 26tik 29ra, Trinitateetako nagusien danborradarako dirua biltzeko

Zapatuan Txapeldunen Ligako finala emango dute pantaila handian

Danborradaren Batzordeak garagardo feria antolatu du, bigarren urtez, Trinitateetako nagusien danborradarako dirua lortzeko. Datorren eguenean inauguratuko dute feria Udal agintariak, eta 19:00etatik aurrera zabalduko dute karpa herritarrentzat. Eguenean eta barixakuan arratsalde irekiko dute, eta zapatuan eta domekan eguerditik aurrera egongo da zabalik. Karpan 350 lagunentzako lekua egongo da, eserita.

Garagardo feriarako joaten diren herritarrek, bost garagardo mota dastatzeko aukera izango dute, eta jateko, txerri-ukondoa eta saltxitxak. Litro erdiko garagardo pitxarrak 3,5 euroko prezioa izango du, ukondoak 6,5 euro balioko ditu, eta saltxitxak 4,5 euro.

Txapeldunen ligako finala

Zapatu iluntzean Bartzelonak eta Manchester United taldeek Txapeldunen Ligako final nagusia jokatuko dute, eta pantaila handian emango dute partida, karpan bertan. Ondoren, DJ festa izango da.



Emaitza ona lortu dute Elgoibarko dantzariak Euskadiko Neskaxena dantza txapelketan



Joan zen asteburuan jokatu zen Legazpin Euskadiko Neskaxena txapelketako finala, eta 11-15 urte bitarteko sailean Elgoibarko sei dantzari hartu zuten parte. Elgoibar izan zen ordezkari gehien izan zituen herria, eta gainera, emaitza onak lortu zituzten: Ane Espillak bigarren egun zuten, eta Leire Astigarraga hirugarren lekuan sailkatu zen. Gainerako emaitzak hauek izan ziren: Andrea Arregi (5.), Alaitz Egaña (8.), Iraitz Gonzalez (13.) eta Miren Astigarraga (14.). Datorren asteburuan mutilek jokatuko dute finala, Errenterian, eta Julen Guillo, Joseba Astigarraga eta Aitor Asenjo izango dira Elgoibarko ordezkariak.

Barreterapia ikastaroa, maiatzaren 28an

Taupada antzerki taldeak barreterapia ikastaroa antolatu du maiatzaren 28rako. Sei orduko ikastaroa izango da, Aubixa aterpetxean, eta izena ematen dutenek han bertan bazkaltzeko aukera izango dute. Ikastaroa goizez eta arratsalde izango da, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:30era. Izena emateko azken eguna maiatzaren 25a izango da. Informazio gehiagorako 656 416 677 (Eduerne).

Ibilaldira, oinez eta mendiz

Elgoibarko Izarrak eta Morkaikok Ibilaldira oinez joateko plana egin dute, maiatzaren 29rako. 7:30ean elkartuko dira Plaza Handian, eta mendiz mendi joango dira oinez, Ondarroara. Lau ordu inguruko bidea egingo dute, eta hara iritsitakoan autobusa izango dute zain, erropaz aldatzeko. 20:30ean itzuliko dira Elgoibarrera. Bazkideek 7 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 10 euro. Izena emateko azken eguna, maiatzaren 26a izango da. Informazio gehiagorako 943 741 262.

Diru-laguntzak %25 handitzeko eskatu diete euskarazko hedabide ez publikoek erakundeei

Euskararen normalizaziorako euskarazko hedabideak beharrezkoak direla esan dute

Euskal Herriko 80 hedabide ez publikok, BARRENEK tartean, 2012rako diru-laguntzak %25 handitzeko eskaria egin diete erakundeei. Horrez gain, publizitate instituzionalaren %25 euskarazko hedabideetara bideratzea eta sektorearen eta instituzioen arteko mahai bat sortzeko ere eskatu dute.

Era berean, erakundeekin izandako bileren berri eman zuten prentsaurrekoan. Azken asteetan euskarazko hedabideek bilerak egin dituzte Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diputazioekin euren egoeraren berri eman eta etorkizuna bermatu ahal izateko.

Euskarazko komunikabideek nabarmendu dute erakunde publikoek eurekiko harremanean sakontzeko konpromisoa hartu dutela eta baita sektorea-



ren eta erakundearen arteko mahai sortzeko ere. Baina 2012rako diru-laguntzak handitzeko eskariaren inguruko erantzuna kezka hartu dute.

Hurrengo hilabeteetan 2012ko aurrekontuak lantzen hasiko dira erakundeak, eta sektoreak espero du euren eskakizunak kontuan hartuko dituztela.

Bestalde, euskarazko hedabideek bizi duten egoera ezagutarazteko eta euskararen normalizazio prozesuan beharrezkoak direla gogorarazteko publizitate kanpaina egingo dute. Publizitate kanpaina datozen egunetan ikusi ahal izango da prentsan, irratian, telebistan eta Interneten.

Gaur arratsaldean hasiko da ludotekako bigarren Aste Nagusia



Ludotekak Aste Nagusia antolatu du, bigarren urtez, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte, gaurtik eta maiatzaren 28ra arte.

Txupinazo Egunarekin hasiko dira ekitaldiak gaur arratsaldean. Kartel lehiaketako sari banaketa egin ondoren, pregoia irakurri eta txupina botako dute. Ondoren, buruhandiak eta zezenkiletak irtengo dira kalera, Mauxitxa txarangarekin, eta eguna amaitzeko, dantzaldia egingo dute. Astelehenean Artista Eguna ospatuko dute; martitzenean, Txiki Eguna; eguaztenean, Gazte Eguna; egunean Sukaldari Eguna; barixakuan Azken Eguna; eta hilaren 28an Familia Eguna. Egitarau guztia: www.elgoibarren.net atarian.

Elgoibar Ikastolak logotipo lehiaketa antolatu du

Elgoibar Ikastolak 2012an 50. urteurrena ospatuko duela eta, ospakizun horren inguruan burutuko diren ekitaldien irudia izango den logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Logotipo lehiaketa irekia da, edonork aurkez dezake logotipoaren diseinu proposamena, beti ere Elgoibar Ikastolaren 50. urteurrenaren ideia oinarri hartuta. Proposamenak honako helbidera bidali beharko dira, ekainaren 1a baino lehen: Elgoibar Ikastola, Ermuaran bide, 7 20870 Elgoibar. Saritutako lanaren berri ekainaren 4an emango dute, Ikastolaren Egunean egingo diren ekitaldietan. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du. Informazio gehiagorako www.elgoibar-ikastola.eu webgunean edo 943 744 441 telefonoan.

Morkaiko Eguna ospatuko dute bihar, mendizaletasunaren jai handia

6:00etan irtengo dira nagusiak, eta 9:00etan gaztetxoak



lazko Elgoibarko mendi itzuliko argazkia.

Morkaiko Eguna ospatuko dute bihar dozenaka eta dozenaka mendizale elgoibartarrek. Aurten, urteroko mendi itzuliarekin batera, mendi itzulitxo antolatu dute antolatzaileek, umeentzako eta gaztetxoentzako. Goizeko seiretan abiatuko dira Plaza Handitik mendi itzulirako izena eman duten nagusiak, eta hiru ordu beranduago, 9:00etan, irtengo dira gazteak. Plaza Handitik Idotorbe-San Pedrorra igoko dira mendizale gazteak, eta handik, Iruiturri eta Morkaiko pasatu ondoren, Aiastia-San Migelera iritsiko dira. Indarrak hartuko dituzte han, mokadutxoak janez, eta mendi itzuliko partaideei animoak eman, bide batez. Mendi martxan parte hartu nahi dutenak garaiz dabilta oraindik, bihar bertan ere egongo baita izena emateko aukera. Bazkide direnek hamabi euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek hamabost. Mendi itzulitxoan izena emateko, berriz, bost euro ordaindu beharko dituzte 18 urtez azpikoek, eta laguntzaileek, berriz, zortzi.

Debabarrenako BTT martxa, ekainaren 26an

Ekainaren 26an jokatu da Debabarrenako BTT martxa. Aurreko urtean legez, bi ibilbide izango dira aukeran: ibilbide motza, 25 kilometrotakoa, eta luzea, 45 kilometrotakoa. Elgoibarko Mintxeta Kirolgunean hasiko dute ibilbidea parte hartzaile guztiek, 9:00etan, eta leku berean bukatuko dute proba. Ibilbidean zehar paraje ederrez gozatzeko aukera izango dute txirindulariek.

Antolatzaileek iragarri dute parte hartzaile guztien artean bazkariak, afariak, bisita gidatuak eta produktu gastronomikoak zozkatuko dituztela, besteak beste. Era berean, zozketa berezi bat ere egingo dute, ekainaren 21a baino lehen izena ematen dutenentzako.

Aurten, berrikuntza bat ere izango da: Hamar euro balio ditu bazkaritarako tiketak, eta izena ematen dutenei Mintxetako pizinetarako sarrerak oparituko dizkiete antolatzaileek. Informazio gehiagorako eta izena emateko: www.debabarrenaturismo.com.

Gure ordezkariak fin aritu ziren domekan, Donostiako maratoi erdian



Elgoibarko eta Mendaroko ordezkariak fin aritu ziren joan zen domekan Donostian jokatu zen maratoi erdian. Udaberri giro ona izan zuten lasterkariak, antxitxika egiteko aproposa oso, eta marka onak lortu zituzten askok. Guztira, 1.708 korrikalarik osatu zuten 21 kilometro pasako ibilbidea, tartean hamahiru elgoibartarrek eta bi mendarorrek [127 parte hartzailek ez zuten proba amaitzerik lortu]. Sailkapen nagusian, Abdellah Taghrifet marokoarra (1:02:05) nagusitu zen gizonetakoan, eta Beatrice Jephumba kenyarra (1:15:21), emakumeetakoan.

43. Roberto Gonzalez	(1:16:08)
62. Alberto Gil	(1:17:28)
129. Alberto Arberas	(1:21:43)
164. Iñigo Salegi	(1:23:35)
780. Jokin Agirrezabala	(1:37:12)
782. Gorka Gallastegi	(1:37:13)
1076. Miguel Angel Montes	(1:42:31)
1082. Julian Rodriguez	(1:42:41)
1206. Pedro Iparragirre	(1:46:01)
1207. Javier Guallar	(1:46:02)
1218. Angel Oñederra	(1:46:16)
1303. Jesus Tadeo	(1:48:44)
1348. Mari Karmen Isasti	(1:49:55)
1418. Mikel Agullo	(1:51:58)
1654. Nerea Lariz	(2:04:02)

Azken unera arte zain egon beharko du Haundik, mailari eusteko

Regionaleko taldeak mailaz igotzea lortu du



Regionaleko jokariak garaipena ospatzen

Haundik 1-0 irabazi zion Portugaleteri zapatuan, Ligako azken partidari, eta elgoibartarrek 17. amaitu dute sailkapen nagusian. Mailari eusteko, baina, beste talde batzuen menpe daude oraindik. Igoera fasea jokatu duten lau taldeetako batek (Amorebieta, Audio, Sestao eta Durango) Bigarren B mailara igotzea lortzen badu bakarrik eutsiko dio Haundik mailari. Baldintza normaletan, igandeko garaipenak aski izan beharko luke mailari eusteko, azken hiru taldeek galtzen dutelako maila. Aurten, baina, hiru barik lau talde jaitsiko dira mailaz. Izan ere, Bigarren B mailan dagoen Barakaldok maila galdu du, eta datorren urtean Hirugarren mailan jokatu duenez, lau tal-

de jaitsi behar dira Ohorezko Preferente mailara.

Regionaleko taldearen txapelketa borobila

Haundikoak bakarrik, ez, baina. Regional mailako mutilak ere lau talde horiek zer egiten duten zain egongo dira. Mailaz igotzea lortu dute, baina Haundik mailari eusten badio bakarrik igo ahal izango dira, maila berean ezin direlako klub bereko bi talde egon.

Elgoibarko infantil txikiak txapelketa borobila osatu dute aurten, eta merezitako Kopa jaso zuten asteburuan. Real Unionen kontra jokatu zuten ligako azkeneko partida, eta 4-0 irabazi zieten irundarrei.

Elgoibarrek aurrera egiteko aukera handia du Herriarteko Pilota Txapelketan

Elgoibarrek 2-1 irabazi zion Andoaini final-zortzirenetako joaneko partidari. Kadeteen norgehiagokak ez zuen kolorerik izan, eta elgoibartarrek 22-4 irabazi zieten pilotari andoaindarrei. Jubenilen partida orekatuagoa eta estuagoa izan zen, eta garaipenak ihes egin zien elgoibartarrei. 16-22 izan zen azken emaitza. Nagusietan, azkenik, aise nagusitu ziren pilotari elgoibartarrak, eta bost tantotan laga zituzten aurkariak. Emaitza horiei esker, aurrera egiteko aukera handia du Elgoibarrek. Datorren asteburuan Andoianen jokatu dituzten itzulera hiru partidetatik bat irabazi, eta beste bietan andoaindarrek Elgoibarren egin zituzten tanto kopurua gaintuz gero, final-laurdenetarako sailkatzea lortuko dute.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 1 – Portugalete 0 (3. maila)
Lagun Onak 2 – Elgoibar 3 (Erreg.)
Elgoibar 3 – Aurrera Ondarroa 1 (Ohorezko jub.)
Añorga 1 – Elgoibar 1 (Kad. A)
Oriko 3 – Elgoibar 2 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 4 – Real Union 0 (Inf. Txiki)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa

Elgoibar 22 – Andoain 4 (Kad.)
Elgoibar 16 – Andoain 22 (Jub.)
Elgoibar 22 – Andoain 5 (Nag.)

Debarroko Txapelketako finalak

Elgoibar 22 – Bergara 5 (Kad.)
Lagunak 8 – Bergara 22 (Jub.)

Lagunak txapelketa

San Martin 7 – Plaza 18 (Benjamin aurrekoak)
Santxez 16 – Maiora 18 (Benjamin aurrekoak)
Ruiz 18 – Aranbarri 16 (Benjaminak)
Zubizarreta 18 – Uruzola 16 (Benjaminak)
Astigarraga 18 – Beristain 6 (Alebinak)
Igartua 18 – Arriola 11 (Alebinak)
Plazako lau t'erdiko txapelketa
Lazarobaster 22 – Gaizka 9
Portu 22 – Arnueta 10

ARETO FUTBOLA

Concepto Createch Elg. 6 – Jarrileros 3
Lakuntza 3 – King-Kong Elg. 1

ESKUBALOAIA

Corazonistas B. 26 – Alkorta Forging 27 (Sen. mut.)
Tecnifuelle 37 – Ereintza 18 (Sen. neska)
Beristain Banaketa Sanlo 23 – La Bacaladera
Hondarribia 10 (Jub. mut.)
Tolosa C.F. 34 – Hotel Txarriduna 29 (Kad. mut.)
Arrate Amaña 13 – Grupo Eibar Sanlo 32 (Jub. nesk.)
IMH 26 – Zalla Taberna Pulpo 18 (Kad. nesk.)
Lauko 46 – Aloña Mendi 20 (Kad. nesk.)
Berezaio Aloña Mendi 35 – Banko 25 (Inf. mut.)
Egia 14 – Casa Astigarraga 23 (Inf. nesk.)
Txixixa Taberna Pulpo 18 – Aterpe 19 (Inf. mut.)
Federopticos IKUS 20 – Bera Bera 21 (Inf. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 21

12:00 Elgoibar – Zarautz (Kad.)

Domeka, 22

16:30 Elgoibar – Lagun Onak (Ohorezko inf.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 21

10:00 Zarazpe Lakatuak Pulpo – J.D. Arrate A
11:30 Amenabar Zarautz A – Amenabar Zarautz B
16:30 Tecnifuelle – Usurbil
18:00 H. Txarriduna – Ereintza (Kad. mutilak)

Domekia, 22

10:00 Gipuzkoako Txapelketako finala (mutilak)
11:30 Gipuzkoako Txapelketako finala (neskak)

ESKU PILOTA, PLAZAKO TXAPELKETA

Domekia, 22

11:30 Portu – Zubi
12:00 Lazarobaster – Agirrebeña

LANA

ESKAERA

• Klase partikularak ematen dira. Batxiler, DBH, LH eta kontabilitatea (maila guztiak).

☎ 666 042 710

• Emakumea lan bila, nagusiak nahiz umeak ere zainduko nituzke.

☎ 685 212 060

• Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest.

☎ 650 756 601

• Emakumea lan bila. Sukalde laguntzaile edota zerbitzari lanak egiteko prest. Nagusiak nahiz umeak ere zainduko nituzke.

☎ 671 343 612 / 943 531 931

• Gizonezkoa ehungintzan edota lantegietan garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 677 155 611

• Emakumea lan bila. Sukalde laguntzaile edota zerbitzari lanak egiteko prest. Nagusiak nahiz umeak ere zainduko nituzke.

☎ 608 474 923

• Gizonezkoa lan bila. Esperientzia dut eraikuntza lanean eta baita baserri lanetan ere.

☎ 685 212 060

• 50 urteko emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientziaduna.

☎ 677 097 015 (Carmen)

• Emakumea lan bila.

☎ 943 741 977 / 648 824 846

• Neska nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka.

☎ 681 018 451

• Emakumea garbiketa lanak egiteko edo umeak nahiz nagusiak zaintzeko prest. Orduka egingo nuke lan.

☎ 618 052 967

• Emakumea etxeko lanak egin eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Geriatria tituluarekin.

☎ 617 567 336

• Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. Abuztuan interna moduan aritzeko prest. ☎ 646 977 562

• Emakumea orduka lan egiteko prest.

☎ 646 464 300

• Esperientziadun emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko.

☎ 626 914 904

• Nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke.

☎ 663 115 241 (Beby)

• Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan.

☎ 648 736 067

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, orduka.

☎ 680 808 125

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, orduka.

☎ 660 651 569

• Mutila lanerako prest. Nagusiak zaintzen, mezulari edo bestelako lanen batean ariko nintzateke.

☎ 682 384 433

ESKAITZA

• Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira.

☎ 943 030 150

• Zerbitzaria behar da, egun erdirako.

☎ 628 528 268

• Komertzial euskalduna behar da. Auto propioarekin. CV bidali nereabat@euskalnet.net-era

• Tabernan lan egiteko zerbitzaria, sukaldaria eta garbitzaileak behar dira.

☎ 666 559 513

• Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da, goiz eta arratsalde lan egiteko. Autoa izatea derrigorrezkoa da.

☎ 610 207 524 / 651 703 406

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

• Etxebizitza alokagai Pedro Muguruza kalean. Bi logela, gutzitx erreformatua eta altzariz hornitua. 590 euro hilean, kontratuarekin. (Juan)

☎ 659 304 159

• Etxebizitza alokagai San Bartolome kalean. 3. pisua, igogailurik gabe. Oso argitsua. 350 euro hilean.

☎ 629 555 808

• Emakumeak bi logelako pisua hartuko luke alokairuan Elgoibarren. ☎ 626 641 318

• Atikoa salgai Altzolan, Donostia kaleko 4an. 42.000 euro. Negoziagarria.

☎ 638 700 639

• Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 648 603 029

• BENIDORM zentruan apartamentua alokairuan. Aire egokitu, eroso eta auzokideentako igerilekuarekin.

☎ 943 740 628

• Lokala salgai Pedro Muguruza kalean.

☎ 610 458 552

• Etxebizitza alokagai Pedro Muguruza kalean

☎ 659 304 159

• Pisua hartuko nuke alokairuan.

☎ 610 458 552

• Lokala salgai. Eguzkitsua, 200 m² 3 solairuetan banaturik. Ate txiki eta handia. Berri-berria. Merke, 100.000 €, Pedro Muguruza, San Pedro aldean.

☎ 610 458 552

• Bikotea etxea hartuko luke alokairuan.

☎ 671 750 872

GARAJEAK

• Bi garaje itxi saltzen dira Jausoro Plazan.

☎ 943 741 129

BESTELAKOAK

• Perikitoak ihes egin du, San Bartolome kalean. Urdin argia eta zuria da.

☎ 615 761 198



Edurne, zure "lasai" eta zure bizitzeko baloreek gure seme-alabengan bizi bizirik darraite





• Zorionak igandean 4 urte egingo dituzulako. Aiton-amona eta osaba izeben partez.



• Zorionak, **Pakita**, astelehenean 83 urte egingo dituzulako. Ondo pasa, lagunen partez.



• Zorionak, **Jone**, bihar 6 urte egingo dituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Josu**, maiatzaren 17an 3 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Leire**, bihar 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.




• Zorionak, **Elsa**, 12 urte dagoeneko! Ondo pasa, familiakoen partez.



• Zorionak, koadrilakoen partez, eta bereziki, Aratzen partez. Muxu handi bat! Askok maite zaitugu.



• Zorionak, **Leire**, atzo 10 urte egin zenituelako. Etxekoen eta bereziki, Beñaten partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Martinko!** Ondo pasa zure urtebetetze eguna! Familiakoen partez.



• Zorionak, **Sabin**, zapatuan 2 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak **Ireneri**, gure etxeko printzesari, gure udaberriko loriari, zure hamaikagarren urtebetetzian. Etxekuen partez.



• Zorionak, **Ane**, gaur 4 urte egin dituzulako. Familiako guztien partez.




• Etxeko mutil handiak 3 urte! Zorionak, **Garli** Etxekoen eta Egorein partez.



• Zorionak, **Leire** hilaren 18an 2 urte egin zenituelako. Gurasoen, Danelen eta familiakoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Ane eta Adur**, 2 urte egin dituzulako. Patxoak laguntxoan eta etxekoen partez.



• **Josu eta Maeva**, Donostiako bilobak, zorionak, Mendaroko amama Arantxaren partez. Igandean joango naiz etxera ospatzera.

• Zorionak, **Aimar**, 3 urte egin dituzulako. Etxekoen eta bereziki, Xubanen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 3 €.

Argazki bikoitza: 5 €.

Hirukoitza: 7 €. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 e€.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARRENEko bulegora 12:00ak baino lehen,

edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

ARETO NAGUSIAN

Etanri surretik izena eman!

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE EKAINAK 11 larunbata, 10:30

Biteri Ikastetxe Nagusia

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI MAIATZAK 21 larunbata, 11:00

IRUN MAIATZAK 28 larunbata, 11:00



20 barixakua

Hauteskundeak

19:00 Mendaroko Bilduren
aurkezpena

Mendarozabal auzoan egingo
dute hauteskundeetako
programaren aurkezpena.

21 zapatua

Kirola

6:00 Morkaiko Eguna
Mendi itzulia, mendi itzultitxo,
Finalista Eguna eta bazkaria
antolatuta dituzte.

22 domeka

Motoak

12:00 Lambretta motoen
kontzentrazioa
Zubibai elkarteak antolatuta,
Altzolako frontoian.

26 eguna

Hitzaldia

19:00 Diapositiba emanaldia
Udal euskaltegiak antolatuta,
Hegoaldera bizikletaz
diapositiba emanaldia eskainiko
du Joanes Gibelaldeak. Kultur
Etxean.

Feria

18:30 Garagardo Feria
Trinitateetako Danborradaren
Batzordeak antolatuta,
Madalako parkean.

27 barixakua

Jaialdia

18:30 Ikastolako jaialdia
Haur Hezkuntzako ikasleen
jaialdia, Ikastolako frontoian.

Batzarra

19:00 CD Elgoibarren batzar
nagusia
CD Elgoibarrek urteko batzarra
egingo du.

OKINDEGIA

22 domeka EIZAGIRRE

FARMAZIAK (24 orduz)

20 Fernandez
21 Yudego
22 Yudego
23 Zabaleta
24 Etxeberria
(Errosario)
25 Ibañez
26 Garitaonandia-Bid.
27 Yudego

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez- Rekalde, 1
(Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta- Kalebarren, 9
(Soraluze)
Tel: 943 751 384



Astlehenean Artista Eguna
Plaza Handian. 17:00etatik
aurrera eskulan desberdinak
egiteko aukera izango dute
HH5-LH6 bitarteko umeek

Gazteleku Udalekuak prest
dauzkagu! Gorlizerera gurekin
etorri nahi? Izenematea
maiatzaren 13tik
ekainaren 11ra



ZINEA

«El mundo según
Barney»

20, barixakua: 22:15
21, zapatua: 19:00/22:15
22, domeka: 19:00
23, astlehena: 21:30

ESKERTZA

EDURNE GABILONDO AIZPITARTE

1972-05-21



*Biharko egunez jaio zinen,
gure aingeru izan zinen Edurne laztana.
Zure urtebetetze egunean ez ezik,
beti izango zaitugu gogoan.
Ez adiorik.*

Zure koadrila

BOZKATU



Alfredo Etxeberria



Elgoibar

**ONENA
EMATEKO GARAIA**





elgoibar
www.bildu.info/elgoibar

eman
botoa
bildu aldaketara

